

Sozialismo demokratikoa

Joxe Azurmendi

1.- Kontzeptua

Mendebaldean **sozialismo** soilki deitzen zaio.

A) Kontzeptuaren adiera positiboa

Positiboki *sozialismoa (ik. III.- ESKOLAK. C. 8) eskola teoriko eta politiko modernoa da, *Mendebaleko Alderdi Sozialista edo Sozial-demokratikoak darraizkiona, planteamendu teoriko nahiz praktikoetan beti *demokraziari atxekia, doktrinako ala *estrategiako maila eta puntu guztietan. Berezitasunak: 1) Pluralismoa oinarrietan aitortzen du, arrazoi diferenteak (etikoak, erlijiosoak, filosofikoak, zientifikoak, etab.) elkarren parean jarriz. Sozialismoa zergatik galderari erantzuten dio. 2) Eratzeko printzipio gisa, *Alderdi barruan ala *Estatuan, programa politiko zein ekonomikoki demokratikoak bakarrik onerizten dira helburuetarako. Honela, nolako sozialismoari erantzuten zaio. 3) Metodo baketsu eta demokratikoez baliatzen da, bai *botere-bidean eta bai gero *Estatuaren eraldakuntza sozialistan. Sozialismoa nola eraiki galdera jasotzen da.

B) Kontzeptuaren adiera negatiboa

Negatiboki, sozialismo demokratiko edo Sozial-demokrazia modernoa 1) **Leninismoaren** kontra burutu da, historikoki nahiz teorikoki eta, beraz, leninismoari (ik. MARXISMO-LENINISMOA) gaitzerizten dio, partiku-

larki Alderdi- eta *iraultz teoria leninistari, *proletalgoaren *diktadurari, *plangintza ekonomiko zentralistari eta Estatu-zentralismo (ik. ERDIRA-KOITASUNA) politiko zein administratiboari (ik. ADMINISTRAZIOA) etab.; ez bakarrik horiek antidemokratiko juzkatzen direlako, baita ere horiek, burrukatzeko metodo gisa, *gizarte kapitalistaren egungo *aurrerabide-mailari dagokion jokabidetzat kontsideratzen ez direlako eta, bestalde, gizarte-antolamendurako eredutzat *sozialismoaren eta *proletalgoaren *interesen kontrakotzat jotzen direlako. 2) **Marxi** dagokionerako, berriz, sozialismo demokratikoa, tradizio marxistaren baitan burutua da, izan, baina ez eksklusiboki; eta lehen *Mundu-Gerraz gero, utzi dio gehienbat ofizialki marxista aitortzeari: lehenik, herritar demokratikoa delako, h.d., *marxismoa onartzen edo ezagutzen ez dutenentzat ere lekurik badduelako, bai eta marxista diferenteentzat ere; eta, bigarren, marxista aitortzearen esanahia, eskolarik eskola diferente izanik, eztabaidatua autoreen artean, problematiko bihurtu delarik, aitorpen formal hutsa litzatekeelako gaur norbaitek bere burua beste gabe marxista aitortzea. Edukina espezifikatu egin beharko luke, baina Alderdiaren zeregina ez da eta ezin izan daiteke, iruzkin diferenteen artean, Marxen interpretazio zientifiko eta historiko hoberena zein den erabakitzea. Marxismoarekiko atxekitasun edo marxismoaren eragintza, ezberdina da Alderdi sozialista batetatik bestetara (aldera esaterako, suediar sozialismoa eta Allenderen asmoetako txiletar sozialismoa); egun, haundiagoa dirudi Hego Europako Alderdietan, lehenago arras marxista ortodoxo izaniko Ipar edo Erdi europarretan baino. Britainiar sozialismoa eta eskandinaviarra beti ere marxismoarekiko independentzia haundiz aurreratu dira.

Sozialismo demokratikoa, izena eta kontzeptua, 1840 aldera Frantzia agertua da eta 1848/49 *iraultz urteetan Europa osoan zabaldua. Hasieretako *Démocratie sociale* eskabide burges-demokratiko liberal frantsesa, Alemanian langile-mugimenduaren programa eta izen bilakatu zen berehala, bertako hizkuntzaren arauera, Demokrazia sozial orde, *Sozial-demokrazia bihurtuz. XIX. mendearen azken aldera, sozial-demokrata eta sozialista, sinonimo gisa erabiltzen dira Europa guztian. Azkenik, Sovietar Erreboluzioaren ondotik, eta izaera demokratikoa azpimarkatzearen, sozialismo demokratiko esango da, sozialismo ez demokratikotik, leninismo-stalinismotik alegia, lekutuz eta *sozialismoa eta *demokrazia kontzeptuak elkarren osagarriak direla, bata bestea gabe ezinezkoak, finkatuz.

II.- Historia

Langile-mugimendua, «makina txikitzaileengatiko» protesta-mugi-

mendu bat izan zen lehenengotan. Hots, *aurrerapen industrial eta teknikoaren etsai gisa abiatua, kale-burruka eta barrikada-mugimendu iraultzaile gisa aurreratua gero, Estatuaren eta *ekintza politikoren beraren etsai agertu zen beti (Engels: «taktika zaharra». «1848.eko tankera»). XIX. mendearen azken laurdenean, II. Internazionalaren (ik. INTERNAZIONALAK) garaian, erabateko Estatuaren eta *ordenu ezarriaren ukotik, Estatu demokratikoa onartzera, medio gisa bederen, eta bere *masa-erakundeak (*Alderdi sozial-demokratikoak, *sindikatuak) antolatzen etorri da, baina beti ere Estatuari *oposizio hutsetan aritzeko. Anarkistak eta sozialistak banatu zirenean, h.d., sozial-demokratikak (marxistak) Estatuaren barruan, legalki Alderdietan eraturik, politikan partehartzea erabaki zuten unean, orduan erabakitzen da orobat *mugimendu sozialistaren bidegurutzetako erabakiorra geroari buruz: *legez kanpo ala barru jokatu. *Eboluzio honetan Marxek zerikusi haundia izan zuen: berak erakutsi baitzuen, lehen epe batetan, *aurrerapen industrialari boluntaristak kontrajartzearen absurdua; eta, gero, hark seinatu baitzuen, halaber, bigarren epearen bukaera, h.d., gerora *proletalgoak bere alderdiak sortu beharra, barrikada-metodoak utziz (Parisko *Komunak porrot egin zuten alegia). Marxek, halere, *ekintz programa zehatzik ez zuen Alderdiontzat; eta, kale-burruketatik alderdi politiko *legaletara iragatean, teoriak berak erakutsi zituen anbiguotasunak, egoera berriarekiko desegokitasunak, lano utzi zituen. Bi arazo gorriok Marxek nola konpondu zituen, gogora genezake, gero ekarri duen kontuagatik: 1. iraultzaile eta eboluzionisten artean Marxen soluzioa konpromisu bat da, haren teorian *iraultza politikoa eta eboluzio ekonomikoa «dialektikoki» lotuta azalduz, baina beti ere *eboluzio ekonomikoa ari dela erabakior; 2. Estatuari buruz jokatzeko moduarekiko arazoan, halaber, Bakunin eta Lassalleren artean erdiko bide bat hartu du: joko demokratikoan partehartu bai (Lassallek nahi zuen bezala), baina *Estatua desegiteko (Bakuninek nahi zuen bezala). Konpromisuok teorian eta paperean baliosago agertu ziren errealitatean baino, eta buruhausterik emango zuten aurrerantzean: legaltasunean diharduen alderdiarentzat, *erreforma ala/eta iraultza, eta Estatuaren barruan ihardunez nola jokatu Estatuarekiko, askatzeko korapilo zailak bihurtzen dira. Azkenean arazo horiexen inguruan banatuko dira *marxismo-leninismoa eta sozialismo demokratikoa. Praxiak laster erakutsiko du, *erreformak iraultza egiteko bidetzat soil bururatzea, ilusio sinplista bat zela teoria sozialistan: erreformarik ezin egin zutenek egin beharko dute «iraultza»; erreformarik egiten arituen artean iraultzarik ez du batek ere egin. Eboluzio batetan, erreformak, medio soil ez eze, beren modura helburu ere badira.

Berehala zabaldu ziren alderdi sozialistak, XIX/XX. mende itzulera aldean, Estatutik Estatura, oro har, Europako alderdi-*bloke bortizkien organizatua beraiek bilakatuz. Baina beren zinezko eragintza politikoa ez

zen indar numerikoa bezain bortitz ageri, indar itxurako beren ahultasun teorikoaren neurri-neurriko eskasa baino: zeharoko *oposizioan galduko ziren. *Kapitalismoak, Marxek iragarri bezala, noiz porrot egingo, «kastrofearen» zain zeuden, orduan *gobernuaz kargutzeko eta gizarteera berri-berria jasotzeko. Bitartean, erreformismoa eta errebisionismoa indartzen ari ziren (ik. SOZIALISMOA, III.- ESKOLAK, B, 4 ETA 5). Lehen *Mundu-Gerraren biharamunean, alegia, katastrofea benetan etorri zenean, ikusi zen, ikusi, teoria sozialista klasikoaren teatrozko distira, baina edukin konkretu falta zeharokoa kontzeptu oinarrizkoen barruan eta haren sinplismoa planteamolde osoan. Sozialistek ia gobernu guztietan sartu beharra izan zuten orduan: 1917 eta 1920.ean Suedian, 1918.ean Alemanian, Austrian eta Belgikan, 1924.ean Ingalaterran... 1931.ean 6 milioi alderdikide eta 26 milioi bozemailerekin kontatzen zuten sozialistek Europan; 1300 *diputatu, 360 egunkari eta aldizkari etab. Eta, halere, gerratea *sozial-demokraziaren porrotaren denbora izan zen: Gobernu, *aliantza, *Fronte Popularra, experimentu sozialista guztiek porrot egin zuten, hain zuzen *langabezia eta inflazioa erremediatu ezinda beti esperatutako *krisi haundian ito zirelako. Ekonomi krisiarekin ezin izan zuten burutu. Alde batetik, Errusiako Erreboluzioaren exenpluaz izututa zeuden. Bestetik, mundu berri bat eraikitzeko planak zituztenek, depresioaren zuloan eroritako mundu zaharra ez zekiten nola moldatu, purismo teorikoaren poderioz, planik gabe krisian zer egin gobernuan aritu arren. Batetik interbenitu nahi ez dutelako («kapitalismoa ez salbatzearren») eta, bestetik, *kapitalismoa erreformatzerik ez dagoela sinetsirik daudelako, politika ekonomiko liberal klasikoaren jarraituko zaizkio («laissez faire»), kapitalismoa bere aise utziz, bere barne-legeei jarraiki, krisiaren barreneraino amil eta porroka zedin, omen. Nolanahi ere, depresioari bere bidea utziz, jendea langabezia gorrian abandonatuz. Suedian bakarrik ausartu ziren sozialistak, Ingalaterran Keynesek ari zuenaren modura, interbentzioko politika ekonomiko «heterodoxoa» kontsekuenteki eramatera, *lana eta jana herri-masa goseentzat sortzeko. Berdin frakasatuko zuen Sozial-demokraziak politika mailan: eraso zion *faxismoak, eraso, eta sozialistei oraindik ez zitzaien buruan sartzen *Estatua edo *demokrazia salbatzea beraiei zegokiekeenik, demokrazia beti burlatu zirenei prezeski: sozialisten hamabost urte eskasetako *hegemoniaren ondoren, faxismoa nagusitu zen Europan, eta *langileriaren parte haundi batek eutsita.

Tragedia historiko honen argitan explikatzen da Sozial-demokrazia klasikoaren berrorientazio eta eraldakuntza sozialismo demokratikotan. Egun, sozialismo demokratikoa, *Internazional Sozialistan bilduta, Mendebal Europako *bloke politiko bortitzena da, eta Estatu-interbentzioaren defendatzailerik deliberatuena, politika ekonomikoan, sozialean nahiz kulturean.

III.- Oinarri doktrinalak

Doktrina aldetik, marxismoaren erlatibazio zientifiko eta humanista gisa explika daiteke sozialismo demokratikoa, hura sozialismo demokratikoaren iturburu doktrinal bakarra inola ere ez izan arren. Aitzitik, bere iturburuaren eta tradizio nazional ezberdinen pluralismoak ezaguterazten du sozialismo demokratikoa. Horrexegatik, diferentea da Txilen, Inglaterran ala Suedian eta diferentea izan nahi du lekutik lekura, ez duelako doktrina «zientifiko» bakar beti berdinek onartzen, munduko edozein zokotan politika ondo egiteko beti arau zehatzak dakizkiena. Hemen, erraztasunaren eta argitasunaren amorez, modu horretan azaltzen badugu, sozialismo demokratikoak, eskola sozialisten artean, ia beti *marxismo-leninismoarekin neurtu eta konparatu behar izaten duelako da. Alabaina, berez, eta historikoki, sozialismo demokratikoa, sozialismo izanki, lehen-lehenik *liberalismoari eta *kapitalismoari buruz-buru autodefinitzen da. Marxismoaren erlatibazio gisa, beraz, sozialismo demokratikoak, behialako *Sozial-demokrazia ortodoxoaren zenbait puntu abandonatu egin ditu, edo eta zentzuz aldatu, batez ere *sozialismoari mugimendu politiko baino erlijiosoago baten tankera ematen zizkioten eskemak. Sozialismoaren zientifikotasunari dagokiola, a.b., sozialismo demokratikoak, zientifikoki jokatzera obligatzen du bere burua; baina ez du uste, esate baterako, sozialista izateko, «katastrofe-teorian» nahitaez erlijiosoki sinestu beharra dagoenik: h.d., kapitalismoak bere barne-*kontraesanen poderioan derrigor leher egin beharko duenik, sozialismoari bidea utziz. Berdin, «azken gizartea», klase gabekoa eta teoria klasikoaren kapitulu inportantea lehenago, orain ia-ia ez da aipatzen. Hori printzipiotzat ulertzen da, baina bestela formulatzen. Sozialismo demokratikoarentzat, klase gabeko gizarteak ez du «azken egoera» historiko definitiborik, etorkizun urruneko egoeraren bat historiaren azken mugan, adierazten; baina orain eta noiznahi agintzen duen printzipioa da. Era berean, *«iraultza» ere ez da krazio magiko bat, hautsi eta hasi, kolpe batez gizarte-formazio libre eta inolako zapalkuntzarik gabeko *egiturak jartzen dituen «jauzi koalitatiboa», zapalkuntza ororen «azken fineko kausak» haizkorakada batez behin eta betiko mozten dituen, orain arteko historiarekin jarraitasuna ebaki eta historia berri-berri bat abiatzen duena: ez da hori, etengabeko gizarte sozialtze progresiboa, «iraultza graduala» baizik. (Leninismoarentzat, aldiz, *URSSek, edo eta *Txinak, funtsean badituzte jadanik behin eta betiko beren azken *egitura historikoak, eta sekula santa eternitate guztian ez da posible izango hobeak asmatzea; *«gainegiturak» bakarrik hobatu beharko omen dituzte, hautsi baitituzte, hautsi, orain arteko *gizarte-klaseen eta *zapalketen historia determinatzen zuten oinarritzko egiturak, *produktzio-ondasunen *jabetza pribatuak determinatuak). Oro har, sozialismo demokratikoa ez da behialako historiaren kontzepzio mitologiko-dramatikoaz baliatzen historiaren

martxa interpretatzeko. Eta, logikoki, *erreforma eta *iraultza arteko alternatiba, edo jabetza pribatuaren eta jabetza kolektiboaren arteko *kontraesana, etab., pragmatikoki ikusten eta baloratzen dira, hots, erlatiboak direla juzkatzen da. Sozialismoaren eta eskola filosofiko diferenteen, edo sinesmen erlijiosoen artean, noski, sozialismo demokratikoak ez du ikusten nahitaezko eta printzipiozko kontraesanik, leninismoak proklamatzeko duen bezala. Ateismoa ez da fede. Libre da bakoitzak proklama nahi duen erlijio edo filosofia profesatzea. Leninismoarentzat, aldiz, Estatu bera neutral da erlijio-kontuan, baina Alderdiak eta *militante komunistek militante ateista izan behar dute, eta filosofian ere «materialistak»; are, marxistak izan behar dute beti.

A) Printzipioak

Sozialismo demokratikoak, izenean bertan ageri ditu bere oinarri doktrinalak:

1.- Sozialismoa, printzipio gisa

*Produkzioaren izaera sozial eta kooperatiboa (ik. KOOPERATIBISMOA) nabaritzuz, sozialismo demokratikoak produkzio-ondasunen, produkzio-ihardunaren eta irabazien banaketaren antolamendu eta kontrol soziala eskatzen du.

2.- Demokrazia, printzipio gisa

Sozial-demokrazia klasikoak *demokrazia luzaro Estatu-era gisa bakarrik ulertu izan badu ere, «demokrazia burges»tzat deskalifikatuz eta birrindu egin behar zela aldarrikatuz, egungo sozialismo demokratikoak *demokrazian oinarritzeko printzipio politiko bat aitortzen du lehen-lehenik, *sozialismoa eta demokrazia elkarren oinarritzat hartuz: ez dago sozialismorik demokrazia gabe eta ez demokrazia politikorik, demokrazia ekonomiko eta sozialik gabe.

B) Helburuak

Helburuak printzipio hauen arauera formulatzen dira:

1.- Demokrazia politikoa

Estatu-era moderno, libre, egokiena, parlamentario-demokratikoari

deritzo sozialismo demokratikoak, alderdianiztasun, prentsa libre, *oposizio *legal eta justiziaren berjabetasunez, aspaldiko formularen arauera: «*Errepublika da sozialismoaren formula politikoa, sozialismoa Errepublikaren adierazpen ekonomiko eta soziala den bezala». Estatuari eta *Estatuaren aparatuari buruz-buru, *gizarteak bere *elkarte eta *erakunde (sindikatu, etab.) autonomoak behar dituela uste du sozialismo demokratikoak, Estatuak gizartea osorik lot ez dezan, Aro Modernoan beharrezko diren erakunde eta kontrol gero eta hertsia goen azpian. «Behar adina Estatu, ahal adina askatasun» (Bad Godesberg, 1959). Izan, demokraziak oro izan arren kritikagarri, sozialismo demokratikoa batez ere «mendebaldar demokraziaren» defendatzaile proklamatzan da, errealitatean, «herri-demokrazia» izenekoak (komunistak), hierarkiko-autoritarioak izanik, alternatibarik ez direlakoan. Mendebaldar demokrazia funtsean onarturik, sozialismo demokratikoa hura aitzinarazten, hedatzen eta sakontzen lehiatzen da.

2.- Demokrazia ekonomikoa

Produkzio-ihardunaren natura sozialari, erantzukizun soziala baitagokio, sozialismo demokratikoak, produkzio-bideen eta *produktioari buruzko ahalmenaren sozialtzea xerkatzen du. Sozialtze kontzeptu hau, halere, leninistenaren aldean esate baterako, txit konplexua da eta sozialismo demokratikoak ez du soluzio patenterik eta edozein kasutarako errezetarik sozialtzea nola egin arazoaz. Jeneralean eta tradizionalki, «industri giltzak» nazionaltzeko zale agertu izan da, sozialtze-modu nabar-nabarmenena hori baita eta sinpleena ere bai. Sozialismo demokratikoak nazionaltzeen bolada klasikoa Lehen *Mudu-Gerraren ondoan izan zuen. Esperientziarekin, ordea, metodo horren alde onak eta txarrak hobeto ikusi dira eta, gaur, nazionaltzea ez da inola ere kontsideratzen sozialtzeko modu bakarra, ezta derrigor egokiena ere. Areago baina, sozialtzea bera ez da jadanik nahitaez *jabetza/desjabetze terminotan planteatzen, sozialistek tradizionalki egin ohi zuten bezala. Beraz, sozialismo demokratikoa egun ez dago produkzio-ondasunen jabetza pribatuari edozein kasutan gaitzerizteko, ez eta kolektiboari edozein kasutan hoberizteko posizioan ere. Hau da, jabetza pribatuaren dogma liberalari ez dio jadanik desjabetze eta nazionaltzearen dogma kontrajartzen, *Sozial-demokrazia klasikoak bezala: harentzat, helburu sozialista gorenaren jabetzaren desegintza baitzen; eta jabetza pribatuaren eta jabetza sozialaren artean ez du honez gero oposizio total eta ezinbestean alternatiborik planteatzen: jabetza pribatuak, bere komenientzia sozialki legitimatu egin behar du; desjabetzeak eta nazionaltzeak ere sozialki legitimatu egin behar du, **a priori** hobetasunik pretenditu gabe. Ez dago nazionaltzearen dogmarik, kasu bakoitzeko komenientzia edo eza baino. Funtsezkoa ez da -helburua- produkzio-ondasunen «jabetza» soziala (azkenean, titulu

juridiko bat), nagusitasun eta kontrol egiaz soziala baino. Ikusia dago, izan litekeela «jabe» (tituluduna), zinez nagusi izan gabe; edo nagusi, jaberik ez izan arren. Kontrol soziala iristeko, aldiz, sozialismo demokratikoak, zuzenkako moduak adina (nazionaltzea a.b.) begiratzen ditu zeharkakoak (*produkzioaren barrutiko *plangintza orokorra, politika finantzario eta fiskala, kreditu-politika, langitz legeak, etab.). Kolpe batez erabateko sozialtze *legala dekretatu barik, aldiari aldiari eta puntu bakoitzean posible den sozialtze-modu eta gradu optimalera jotzen du, problemaren alderdi ezberdinak kasu bakoitzean partikularki kontsideratuz eta pisatuz (produktibitatea, kontsumatzailearen hautatzeko *askatasuna, lantokien segurantza, etab.). Beraz, sozialtzearen printzipioa ez da absolutua, ez sinplea; kondizionaturik dago eta bere neurria, hain zuzen, komenientzia da, kontsiderazio (politiko, sozial, ekonomiko) ezberdinen argitan. Konplexitate honegatik, sozialismo demokratikoari maiz «erreformismoa» eta «*oportunismoa» leporatu ohi zaizkio. Holako zerbait ez dago ukatzerik, horren balorazioa, beti ere, inork aurretik daukan posizioetik egina egon arren: eta sozialismo demokratikoa bera, honez gero, ez dago alternatibismo klasiko, «iraultzailearen » posizioan. Aitzitik, «demokrazia ekonomiko» kontzeptua, *mugimendu sindikalaren *slogana berez, Lehen Mundu-Gerraren ondoan, eta handik mugimendu politikorra sartua, «*iraultza» kontzeptua ordeztara etorria da nolabait, bidearen buruan ia derrigor *Estatu munstro batetan itsasoratzen zuen iraultza ideia klasikoaren lekuan, iraultza gradual, progresiboarena, hobetsiz. Demokrazia ekonomikoaren kontzeptuak, *merkatu libre eta kontrol sozialaren sintesi optimo bat adierazi nahi duelako, hain zuzen. Izan ere, medio ekonomiko guztiak Estatu erraldoi baten eskuetan pilatzea (h.d., azkenean, Estatu eskuetan duen taldearen eskuetan), Estatu absolutua (ik. ABSOLUTISMOA) *askatasun sozialekin elkartezinezkotzat dauka sozialismo demokratikoak. Areago, ekonomia moderno aurreratu batetan, soil teknikoki ere ez zaio efektiboena iruditzen holako estalalizatzea, *plangintza zentralista batekin, etab., langilearen explotazioa eta dependentzia batere soluzionatzen ez dituela uste izateaz aparte. Estatu ahalguztiduna eta sozialismo demokratikoa kontzeptu etsaiak dira. Sozialismo demokratikoaren sloganak, «ahal adina *konkurrentzia, behar adina Estatu», dio.

3.- Demokrazia soziala

Axola bereziki biziz begiratzen ditu sozialismo demokratikoak, produkzio-ihardunetan ari ez diren eta, horregatik, irabazietan zuzenkako parterik ez dutenen sail sozialak: ume, agure, gaixo, langabekoak etab. «Bakoitzak ahal adina, bakoitzari behar adina» delako printzipioak, ezinduen eta ahulen kasuotan aurkitu behar duela lehenengo aplikazioa, uste du. Sozialismo demokratikoa, logikoki, zahartzaroko errenta, asegu-

ru sozial, osasun publiko, eskola, etxe-merkegintza, bizigiroaren egokitasun ekologiko eta, arrunt, legegintza sozialean, nabarmendu da beti. Bestela ere, «ahalik eta *askatasun haundienean, ahalik eta *berdintasun haundiena» bilatzen du sozialismo demokratikoak, edo («**greatest happiness of the greatest number**») ahalik eta gehienentzat, ahalik eta erosotasun haundieneko bizimodua. Hots, politika sozial ohi deritzana.

C) *Metodoa*

Metodo edo **bideen** arazoa, printzipio haien eta helburuon artean erabakitzen da. *Bortxazko bideak utzi eta *parlamentuzkoak hobetsiz gero, sozialismo demokratikoak, 1) *«Botere oso» gabe aritu behar izaten du bere programak aurrera ateratzen, h.d., *herriak eman adina boterez; 2) botere errebokagarritz, *hauteskudetik hauteskundera. Beraz, sozialismo demokratikoak ez du kontatzen, herriak emana edo eman omen ditzakeen *mandatu unibertsal eta atzeraezinezkoz, *gobernuan «botere osoz» aritzeko; aitzitik, herriaren epaiari makurtzen dio, lehenik programa eta gestioa gero, herriak juzka eta erabaki dezan, hauteskunde-bidez, zeini eman bere mandatua, beti mugatua bai denboraz eta bai eginkizunez. Hau da, momentu bakoitzean herriak nahi eta oneritzi adina «iraultza» («**revolution by consent**», H. Laski) egingo da eta herriak enkargaturiko moduan, herri subiranoak, gobernu-aldi batetan eraman den gestioari nahiz egitea pentsatzen den programari, aurretik nahiz ondotik on ala gaitzerizteko esku duela. Izenak berak dioenez, sozialismo hau demokratikoa da, oinarri, helburu nahiz bideetan.

IV. Joera diferenteak

Sozialismo demokratikoa ez da eskola monolitiko bat, eskolarik dela ere ezin esan daiteke ondo. Modu diferentetan bilakatu da lekutik lekura, tradizio eta esperientzia nazional ezberdinen eta lekuan lekuko baldinkizunen arauera: aurreratu ere baita, aurreratu, orduantxe gerra galdu (Alemania, Austria), edo irabazi (Ingalaterra), edo gerratik salbatu ahal izan duen Estatu batetan (Suedian), edo gerra-egoera etengabea bizi duen Estatuan (Israel); Estatu haundi eta populutsuan (Ingalaterra, Frantzia) edo txikian (Islandia, Finlandia); Estatu inperialista (ik. IMPERIALISMOA) batetan (Holanda, Belgika, Ingalaterra, Frantzia), edo neokolonizatuan (Txile), edo askatu berrian (Irlanda), edo askatu nahitakoan. Leku batetan ekonomia hondatu bat heredatu du, miseriatik nola edo hala irtetzea orduan *erreforma kostutsuak egitea baino premiazkoagoa izanik; edo

goraldi ekonomikoen une batetan aginpideratu da, *hautesleriak «experimentu arriskutsurik» nahi ez zuenean. Alderdi Komunista bortitz batekin lehian ari da nonbait, parlamentuzko *gehiengo osorik gabe maiz, inoiz Goiko Ganbara baten kontra ihardunez, etab. Alderdi sozialista bat *gobernuan ari da, beste bat *oposizio luzean. Leku bakoitzean diferentia da sozialismo demokratikoa.

Areago, mundua bi *bloke militar, ekonomiko eta politiko etsaitan erdibiturik dagoenez gero, *sozialismoaren historia, *komunismoarena bezalatsu, blokeon historia politiko mundialari lotu-loturik eta harreman internazionalak oso baldintzapeturik ibili da, nahitaez blokeko posizioak sarritan nagusitzen zirelako. Harez gero, teoriak eta ideiak beren parte izan dute, baina faktore politiko alderdiz eta nazioz gaindikoez izan dute jeneralean parte haundiena nazio bakoitzeko sozialismoaren taiuketa konkretuan, sozialismo demokratikoak askotan jokatu duen paper *konterbakorrean batez ere. Bestalde, Stalinekin Sovietar Batasunean zeukan problema «herri bakarreko sozialismoa» sozialismo demokratikoak ere ezin entseiatu ahal izan du, sozialismo nazionala alegia, sozialismoa definizioz berez internazionalista izan arren.

Besteak beste, bi mota edo joera berezi ohi da arrunki sozialismo demokratikoan, biok mila modutan izendatzen baitira: eskuin/ezker, sozialismo/sozial-demokrazia, sozialismo/erreformismo iraultzaile... Oinarri-oinarrian, De Manen 1933.eko bereizkuntza dagoke, bi erreforma suertetara: alegia, banaketa-erreforma ala/eta (*produktzio-moduaren beraren) *egitura-erreforma bultzatu; edo, sozialismo demokratikoak ba al daukan albernabata globalik gizarte neokapitalistari, ala «okerrak» zuzenduz aritzea besterik ez. Oro har, egun, sozialismo demokratikoaren panoramak, *sozialismo epel-epelenetik hasi eta *anarkismotik eta *trotskysmotik gertu samarreraino hedatzen dela ematen du. Sozialistak eta komunistak elkarrengana hurbiltze batek ere posible dirudi jadanik Europan, historiako langile-mugimenduaren eten kaltegarriena gainditzeko bidean.

SOZIALISMOA; SOZIAL-DEMOKRAZIA; KOMUNISMOA; MARXISMO-LENINISMOA; TROTSKYSMOA; ANARKISMOA; KAPITALISMOA.

Bibliografia

Bourgin, G. Rimbart, P. (1973): *Le Socialisme*. Brand, C.F. (1965): *The British Labour Party*. Brucclain, C. (1965): *Le socialisme et l'Europe*. Katzakov, K. (1960): *Théorie de la nationalisation*. Lefranc, G. (1971): *Le Socialisme réformiste*. Lehnert, D. (1977): *Reform und Revolution in den Strategiediskussionen der klassischen Sozialdemokratie*. Lewis, B.W. (1952): *British Planning and Nationalisation*. Miliband, R. (1964): *Parliamentary Socialism. A Study in the Politics of Labour*. Parent, J. (1970): *Le modèle suédois*. Parkinson, C.N. (1967): *Left Luggage, From Marx to Wilson*. Rosenberg, A. (1938): *Demokratie und Sozialismus*. Sauvy, A. (1970): *Le socialisme en liberté*. Schumpeter, J.A. (1942): *Capitalism, Socialism and Democracy*. Sensoy, A. (1952): *Le mouvement des nationalisations en France*. Steinberg, R.J. (1967): *Sozialismus und deutsche Sozialdemokratie*. X.X. (1952): *Social Sweden, (by Social Welfare Board)*